



ANDER BERGARA, GIZONDUZ EKIMENAREN KOORDINATZAILEA

“Gure ikastaroen helburua berdintasunaren alde egiteak gizonen garapena ekarriko duela azaltzea da”

June Fernández.

El programa de sensibilización y formación puesto en marcha el pasado marzo es una de las iniciativas más ambiciosas desarrolladas por la Iniciativa Gizonduz, impulsada por Emakunde para promover la implicación de los hombres a favor de la igualdad. El programa incluye 16 cursos presenciales y dos on-line, además de ofrecer la posibilidad de impartir cursos a la carta. A los dedicados a reflexionar sobre la masculinidad se suman otros que analizan el impacto que el machismo tiene en diversos problemas y retos sociales. Todo ello es gratis y se ofrece en las tres capitales vascas en diferentes horarios, también los fines de semana. Ander Bergara coordinador de Gizonduz nos cuenta todos los detalles.

Z EGIN DA PRESTAKUNTZA PROGRAMAREN HELBURUA?

Gure helburua berdintasunaren alde sensibilizaturik eta prestaturik dauden gizonak plazaratzea da. Jokabide sexistak aldatzeko jendearen beraren portaera aldatu beharra dago eta, horretarako, lehen urratsa euren pentsamendua aldatzea da, sensibilizazioaren eta prestakuntzaren bidez. Mila pertsona inguruko ikastaroen bidez, eguneroko bizitzan berdintasunaren alde apustu bat egitera prest dauden gizonen masa kritiko bat lortu nahi dugu.

ZEINTZUK IKASTARO GOMENDATZEN DITUZU BEREZIKI?

Maskulinitatea zer den ikasi nahi duenak ikastaro orokorretan izena eman dezake. Baina dagoeneko berdintasunaren inguruan prestakuntza duenak bere bizitzarekin edo lanbidearekin lotutako ikastaroak topatuko ditu: aitatasunari buruzkoak, osasun arloan lan egiten dutenei zuzendutakoak...

ORAIN ARTEKO PARTAIDEEK KONTUAN HARTUTA, ZEIN DA PROFIL NAGUSIA?

Ez dago profil bakarra. Funtzionarioek, sindikatu kideek, kaleko jendeak, gizon taldeetan ibilitakoek etabarrek parte hartu dute ikastaroetan. Bestelako jendea, berdintasunaren eremuan lan egin ez duten horiek erakartzea garrantzitsua iruditzen zaigu. Emakumeak ere izena ematen ari dira. Partaideen %30a baino gehiago ez izatea nahiago dugu, programa gizonei zuzendurik dagoelako, baina malguak gara. Orain arte, Internet bidezko ikastaroek izan dute eskari gehien. Gainera, prest gaude enpresa, sindikatu, eskola eta edozein talderen neurriko ikastaro bat prestatzera. Bitarteko guztiak jartzen ditugu prestakuntza zabaltzeko. Ikastaroek harrera ona izan dute eta ahoz aho zabaltzen joatea espero dugu.

GIZONDUZ-EKO IKASTARO BAT EGITEAK ZER ERAGIN IZAN DEZAKE GIZONENGAN?

Den-denetan gure helburua hausnarketa teoriko hutsean ez geratzea da. Hala, ikastaro bakoitzaren azken atalean ikasitakoa praktikan, bizitza pertsonalean nahiz profesionalean, nola

LOS CURSOS

El programa completo se puede descargar en la web de Gizonduz: www.euskadi.net/gizonduz

- **Generales:** El curso básico (4 horas el presencial y 8 el on-line) ofrece unas nociones básicas sobre cómo se construyen los roles de género y cuáles son los nuevos modelos de masculinidad. El curso avanzado (20 horas el presencial y 60 el on-line) aborda temas como la importancia de los cuidados, los problemas de género de los hombres, o el movimiento de hombres por la igualdad.
- **Específicos:** Todos duran 4 horas y empiezan con unas nociones básicas sobre el origen de las desigualdades de género, el modelo de masculinidad hegemónica y las nuevas masculinidades para aplicarlos luego a realidades concretas. Se podrían dividir en las siguientes categorías:
 - Los que proponen estrategias de prevención: Criminalidad, Riesgos laborales, Acoso sexual en el trabajo, Drogodependencias, Educación vial, Violencia contra las mujeres.
 - Los que analizan qué aportaría el cambio de los hombres a retos sociales: Cooperación al desarrollo, Derechos humanos, Salud, Medios de comunicación.
 - Los que invitan a los participantes a un cambio personal: Paternidad igualitaria, Los hombres mayores y el cuidado, Los hombres y el amor.

aplikatu daitekeen azaltzen da. Horretarako, teoriak gain, bideoak eta dinamika praktikoak erabiltzen ditugu. Gainera, Gizonduz-ek antolatutako beste ekintzetan parte hartzeko ate bat izan daiteke. Esaterako, partaideei gure gutuna sinatzera, web ataria erabiltzera eta blogan euren iritziak ematera gonbidatu eta animatzen ditugu.

ASKORI ZAILA EGINO ZAIE ASMATZEA ZER LOTURA DAGOEN MATXISMOAREN ETA DROGAK ZEIN BIDE ISTRIPUAK BEZALAKO ARAZOEN ARTEAN.

Gizartean gertatzen diren gauza asko normaltasunez hartzen ditugu, baina estatistiketara jo eta dena argitzen da. Delitu bat egiten duten pertsonen % 90 gizonak dira, ondorio larriak dituzten istripuetan gidarien %80a, eta legez kanpoko drogen kontsumitzaile gehienak haiek dira. Datu horiek ez dira kasualitatea, gizonok boterea, indarkeria, lidergoa eta lehiatasunean heziak garen ondorio baizik. Boterea besteen kontra erabiltzeko eta arriskuak hartzeko bel-

durrik ez izateko prestatzen gaituzte. Ausardia azaltzeko modu matxista da abiapuntua. Ikastaroen helburua, berdintasunaren alde egiteak emakumeen egoera hobetzeaz gain gizonen garapena ere sustatzen duela azaltzea da.

ZAILA EGIN ZAIZUE IKUSPUNTU HORI GARTU DUTEN ADITUAK ETA MATERIALAK AURKITZEA?

Gaia nahiko berria da eta ez dugu ezagutzen gurea bezalako beste programarik, gizonen zuzendutakoa eta hain zabala. Maskulinitatearen inguruan hausnarketa orokorrak egin dira jadanik, baina gai zehatzen inguruko lanak aurkitzea zailagoa izan da. Aldez aurretik, hainbat adituri idatziz proposamenak bidaltzea eskatu genien. Lan hori oinarritzat hartuta, ikastaroak gizon taldeekin arituriko gizonen eskaintzen dituzte. Materialak ikasleen ekarpenekin eguneratuko dira eta programa bukatzean bilduma bat argitaratuko dugu. Hala, berriak izango diren eta ikastaroetan frogatuak izan diren gaien buruz bibliografia bat sortuko dugu. ●



JAI BERDINAGOAK +

Emakume eta Gizonen arteko berdintasun Siletik, **BERDINTASUN HANDIAGOAN OINARRITUTAKO JAIEN** alde egin nahi dugu.

Horretarako, 2009ko **MADALENETAKO** Egitarauan parte hartuko dugu, kale-antzerkiko emanaldi bat eskainiz. Antzezlanean, umorez, zama familiarak dituzten eta bakarrik dauden emakumeen arazoa jorratuko da, eta emanaldira joatera animatzen zaituztegu.

Gainera, hona hemen kontuan hartzeko moduko beste zenbait ideia:

Bazkari bereziak prestatzea, Jailetako arropak atontzea, laguntza behar duten pertsonen arreta ematea eta abar, batez ere, emakumeek egin behar izaten dituzten lanak dira, eta, ondorioz, jaietan parte hartzeko behar den denbora eta energia galtzen dute. Hori dela eta,

***EGIN EZAZU AHAL DUZUN GUZTIA, EMAKUMEEK JAI EZ GOZATZEKO DENBORA GEHIAGO IZAN DEZATEN!**

EMAKUMEA BAZARA, BANATU ITZAZU JAI EK DAKARTZATEN LAN "ESTRAK"!!

. Jaietan, alaitasunaren, anabasaren, ohi baino alkohol gehiago edatearen eta abarren ondorioz, erasoak, sexu gehiegikeriak eta abar sortu daitezke:

*** NESKA ETA MUTILEKIN DITUZUN HARREMANETAN, EZ UTZI NAHI EZ DUZUN JARRERARIK GERTA DADIN!!**

Eta azkenik,

*** ANIMA ZAITEZ ETA INGURUKOAK ERE ANIMATU OHIKOAK EZ DIREN BESTE EKITALDI BATZUEKIN GOZATZERA!!**

JASO AGUR BERO BAT ETA JAI ZORIONTSUAK IZAN!

FIESTAS + IGUALITARIAS

Desde el Área de Igualdad de mujeres y hombres, queremos apostar por unas **FIESTAS MÁS IGUALITARIAS**.

Para ello, vamos a participar en el Programa MADALENAS 2009, incluyendo un teatro de calle en el que se ofrece, en clave de humor, la problemática de las mujeres solas con cargas familiares y al que os animamos a acudir.

Además, ahí van algunas ideas a tener en cuenta:

Las comidas especiales, el cuidado de la ropa de Fiestas, la atención a las personas que no se valen solas, etc., recaen sobre todo en las mujeres, lo que les resta tiempo y energía para participar en las actividades festivas. Por eso,

***¡FACILITA QUE LAS MUJERES TENGAN MÁS TIEMPO PARA DISFRUTAR DE LAS FIESTAS!**

SI ERES MUJER, ¡¡REPARTE LOS TRABAJOS "EXTRA" QUE ACARREAN LAS FIESTAS!!

. La alegría, la confusión, la mayor ingesta de alcohol, etc., en Fiestas pueden propiciar agresiones, abusos sexuales, etc.

*** ¡¡NO PERMITAS CONDUCTAS NO DESEADAS EN TUS RELACIONES CON CHICAS Y CHICOS!!**

Y por último,

*** ¡¡ANÍMATE Y ANIMA A DISFRUTAR DE OTRAS ACTIVIDADES FESTIVAS DIFERENTES DE LAS HABITUALES!!**

¡UN SALUDO Y FELICES FIESTAS!



Berdintasun Saila - Área de Igualdad
ARRIGORRIAGAKO UDALA

